

Kristina Arregi Egidazu

*Arrasate,
Gipuzkoa
(1928-2015)*

Aurkibidea

Biografia



Musakola auzoko Garratz baserrian jaio zen 1928an. Aita Garratzekoa bertakoa zen eta ama Arruenekoa (gaur galduta). Hamabi anai-arrebatan gazteena zen Kristina. Zigarrolako eskolan ibili zen gerra aurretik eta gerra denboran kaleko merzedarietan ikasi zuen. Umetatik baserrian egin zuen lan, harik eta Erdiko kaleko Pako Arriaranekin ezkondu zen arte. Hiru seme-alaba izan zituzten.

Zintak

ARR-082

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Arrasate.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-07-08
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa

ARR-083

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Arrasate.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-07-08
- **Iraupena:** 15 min
- **Euskarria:** MiniDV

Pasarteak

1. Etxean gizonik ez

- **Erref:** ARR-082/003
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:02:34. **Bukatu:** 00:04:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Zigarrola auzoko eskolara joaten zen, baserrian lanik ez zegoenean. Gerraren ondorioz hil zitzairen anaia bat, eta lan istripuan beste bat, 16 urte zituela. Mutil bat eta zortzi neska geratu ziren etxean. Neska nagusiak neskame joan ziren. Kristinak 18 urte zituela, anaia bakarrek etxetik alde egin zuen.

Transkripzioa

-Ta eskolara nora faten... nora fan ziñan zu?
-Ni e Zigorlako zerera, eskolara.
-Ziorlako eskolara.
-Bai. Maistrie gauken.
-Izena goguen dakotzu?
-Ba... oin ez jat /etxat/ etorriko.
-Bueno, igual xao... Eta zenbat urtekin hasi ziñan eskolan?
-Ba ez dakit /eztakitt/ horixe...
-Sei, zazpi edo?
-Bai, holan bielduko nindduen. Baiña eskola baiño gehixau, baserrixen gehixau lan eitten gauen. Zegatik eze lana baeuen.
-Eskolara tururu.
-Tururu. Eskoliori guretako ez zan izeten.
-Ze itten zeuein, ittaurrien eta...
-Ba danera.
-Danera?
-Danera.

-la umetatik e?

-Bai. Bai, bai, hori ez uskun guri perdonau. Gaiñera, ba, lau seme o euki zittuen, lau mutil, ezta? Eta bi, zera, bat gerrako zerak, konjelau-edo ein jakon hankie, eta horko konplikaziñuaz hil ein zan.

-Kontxo!

-Eta bestie tronkuek harrapau auen hamasei urtekin.

-Basuan lanian?

-Bai. Ez, han etxe aurrien, kargau ta deskargan abitzela, burdixe, ba, zertu ein zan, jausi jakon gaiñera eta errebentau ein utsen.

-Mekatxis la mar.

-Errebentau tripie, barruen. Erdixen hartu auen ta han geratu zan. Ta, klaro, ba geratu gitzen batekin.

-Ta beste danak neskak.

-Ta beste danak neskak. Ta neska nausixek, ba, krieria, alde batera edo bestekaldera ibili die. Gu, gaztien bixok, ba, ez gitzen fango iñora. Baiña Joxepa ta horreik, ba, hor ibili zien, etxeik etxe, alde batera edo bestekaldera. Gu ez, guri ez jakun /etxakun/ tokau zerik.

-Kriarantzarik?

-Krierantzarik ez jakun /etxakun/... etxien gehixau, etxien.

-Etxeko kriadak, etxeko kriadak, ezta?

-Ez auen ta. Ez auen ta. Anai bat geratu jakun ta bera kantsau ta iges ein uskun etxetik. Karo, beretako dana.

-Eta alde ein eben e?

-Bai.

-Jontxo!

-Eta...

-Zenbat urte zeuketzun zuk, anaiak alde ein auenien?

-Ba ez dakit, hamazortzi edo... urte bat bai.

2. Gizonezkoen parean lanean

- **Erref:** ARR-082/004
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:04:54. **Bukatu:** 00:06:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Kristina pinu botatzen jardundakoa da, trontzan gizonezkoekin. Ganadua zaintzen ere ibiltzen zen. Eskolara gutxi joan omen zen.

3. Gerra denboran kalera

- **Erref:** ARR-082/005
- **Iraupena:** 0:03:38. **Hasi:** 00:06:20. **Bukatu:** 00:09:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra denboran, soldaduak etxeko ganbaran egon ziren, euren bonba eta

guzti. Orduan ahizpa baten etxera joan zen kalera, eta Mesedetako eskolan (Mercedarias) ikasteko aukera izan zuen. Arrasateko bonbardaketak eta hildakoak gogoratzen ditu.

4. Anaia galdu zuen gerran

- **Erref:** ARR-082/006
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:09:58. **Bukatu:** 00:12:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Aita gerra denboran etxea zaintzen geratu zen. Anaia bati Teruelgo batailan oinak izoztu zitzaizkion. Etxera bidali zuten, baina Elgoibarko ospitalera eraman, eta bertan hil zen.

5. Elurteak lanak zaildu

- **Erref:** ARR-082/008
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:13:45. **Bukatu:** 00:15:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Ganaduak eta behorrak zituzten Garratzen. Amak goizero behorrek tiratutako organ ekartzen zuen esnea kalera. Elurtea bazen, behorriari saskiak jartzen zizkioten esnea ekartzeko. Lehen elurra gehiago sendotzen omen zen. Soldaduek ez zieten ganadurik kendu.

6. Militarrek etxean

- **Erref:** ARR-082/009
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:15:50. **Bukatu:** 00:17:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

20 soldadu inguru egoten ziren etxean. Jatorduak beraiek prestatzen zituzten, baina ofizialek etxeko bi logelatan egiten zuten lo; tropak ganbaran, lasto eta garo artean. Kristinak esku-bonbak bere eskuetan eduki zituen.

Transkripzioa

-Militarrak ganaurik edo txahalik edo kendu ez otsuen ein?

-Ez, ez uskun kendu. Eurak e...

-Zenbat soldau inguru eukitten zittuein etxian?

-Ba eongo zien e, ze esango dutsut /esangutzut/ nik, hogeit bat bai. Denpora baten.

-Ta jan da lo ta?

-Eurak eitten zittuen, bai, han atzekaldien, eurak eitten zittuen. Oin e, Kapitana ta hori etxien, ohien. Ta gu beste kuarto baten danok, ba, koltxoie bota lurrera ta batzuk goixen ta beste batzuk behien. Baiña eurak bi kuarto behintzet eurakin.

-Ofizialentzako.

-Bai, ofizialak ohien, ta bestiek kamaran.

-Soldauak kamaran bonbakin eta...

-Bai, ira artien ta lasto artien harek. Baiña ha kamarie zan... nik ez dakit zela ez auen errebentau ezek e!

-Edo erre, edo erre, su emun zigarro batekin.

-Pu! Baitte. Zegatik eze ez auen beste... lastue ta irie besteik, kamaran! Ta han ibiltten zien, esaten dutsut /esateutzut/, nik haik bonbak eta... ontxe be akordau eitten naz. Zelan e... jausi eitten gitzen, ta bai e, ta estropezau ta "pom!" Ta ze jo ta, ha agerketan zuan. Bonbak. "Bomba de mano", ba, lata modu batzuk zien, zer bateaz, anillo bat eta zintta bat. Eskuetan be asko euki dau. Ta botateko moduen! Ze esango dutsut /esangutzut/ nik ba.

-Deskuiduen han estropezu eindda... anillai tira ein, edozer gauza, eta "pumba!"

-Ya esta! Ein gotsen. Baiña ez dakit, bastante zerak gitzen itxurie dauenez, ezta? Bestela...

-Bai, bai, nik ez dot hori pasau, ez dakit.

-Bai, nik e... eskuetan hareik ibilitte nau.

-Pentsaizu, zortzi urteko umia!

-Bai. Ta...

-Zela itxi leikixo hola ume batei holako gauza bat!

-Horixe! Konturatu zienien ekarri nindduen etxera! Baiña ordureko ia, han hilliek pasau gittuen eurakin. Baiña, esaten dutsut, ha izen zan izugarrizko gogorra.

-Jontxo, jontxo, jontxo...

7. Auzoa erasopean

- **Erref:** ARR-082/010
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:17:58. **Bukatu:** 00:21:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Militarrek auzo guztia hustu zuten, Garratz baserria kenduta. Etxe inguruak erasoak izan zituen. Bonba batzuk ez omen ziren lehertzen. Kanpazar aldetik etortzen ziren bonbok. Urruneko bonbardaketak ere entzuten zituzten. Frontea aldendu eta gero, etxetik kalera joateko baimena (salbokonduktoa) behar izaten zuten.

8. Aita Kubako gerran egona

- **Erref:** ARR-082/012
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 00:22:24. **Bukatu:** 00:26:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » XIX. Mendea

Laburpena:

Etiket irteteko baimena (salbokonduktoa) udaletxean ematen zuten, eta 15 egunerako edo hilabeterako izaten zen. Herritarren batek salatuta, aita hiru epaiketa jasan behar izan zituen, baina onik irten zen. Aita Kubako gerran egondakoa zen. Itsasontzia bertaraino arraunez eraman zutela esaten omen zuten.

Transkripzioa

-Baña zueik, karo, zueik bizi baziñain Garratzen, karo, salbokonduktua kalera etorteko biher bazebein, zelan etorten ziñain? Lehenengo salbokonduktua...

-Aiuntamentuen ataraten gauen. Etorri ta, ba, zertute auenien, kadukaute auenien...

-A, renobaittera?

-Ba hor, aiuntamentuen edo hor ataraten gauen.

-A, salbokonduktua izaten zan egun batzutarako?

-Pasue bai, hilebeterako edo hamabost egunerako edo emuten auen, ta hareaz ibiltten gitzen. Harek barek ez auen urteixerarik. Oseake... Ta gero gure aitteri be bota utsien hor kulparen batzuk.

-Aitteri?

-Bai. Zera zala ta, hor izugarrizko... hiru juizio euki zittuen.

-Aittek?

-Ta atzenien urten auen ondo. Bai, zera zala...

-Baiña ze, ze salaketa edo ze leporaketan otsain?

-Ba sozialista edo zer, ez dakit ba lehen zer zan. Reketie ez zan izengo ta.

-Ia, ia, igual ez.

-Bai...

-Baiña berak...

-Baiña zerak, etxe... hamen herriko zerak ein auen e.

-Baten batek denunziau, ezta?

-Bai, denunziau ein auen.

-Bai hori leku danetan pasau zan, bai. Ta zure aitta gerrara ez zan fan.

-Ez, ez jakon /etxakon/ tokau.

-Etxien egon zan?

-Ez jakon /etxakon/ tokau. Bueno, Kuban-ta egon zan, bere gazte denporan.

-Kubako gerran egon zan?

-Bai. Kuban. Gaiñera esaten auen barkuen eurak erremaute fan ziela.

-Bai zea fango zien Kubaraiño!

-Bai, bai! Pentsaizu! Berak esaten auen. Gaiñera...

-Baiña haik zerak eukiko zittuein...

-Txandaka-txandaka, baiña zerakin ibiltten ziela. Remuekin fan ziela.

-Kubaraiño?

-Kubaraiño, bai. Kubako gerran egonda...

-Estropadetarako onak izengo zien orduan!

-Bai. Bai, ba ta ez dakit zenbat egunien egon zien itsasuen.

-Remaitten?

-Allegau barek. Allegau eziñik.

-Aiba! Ta ze, zenbat denpora in eben Kuban?

-Ba ezt dakit, baiña urte batzuk bai. Urte bat ero bi bai, ein zittuen.

-Ta han gerran eongo zan.

-Gerran, gerran, gerran.

-Baltzak hiltten?

-Ba, itxurie. Baltzak egongo zien. Eurak zurixek izengo zien ta.

-Eurak, zera, zeure aitta horrek ze kontu ekarri eben Kubatik? Ze kontaitten

otsuen zeueiri?

-Harek? Kubari buenooo, boniatuek jaten zittuela, besterik ez auela jateko. Boniatue. Boniatuoi ez dakit zer zan, baiña...

-Boniatua, patatian antzera.

-Patata modukue ezta? Ba hori, boniatue besterik, eta gero ba frentien betik zerakin. Eta bastante txarto pentsetan dot pasau auela.

-Orduen egongo zan erregie Españan, ezta?

-Itxurie.

-Bai, karo. Haik zien koloniak.

-Koloniak. Ba hor juan zan. Ez dakit oin auzokorik bateronbat fan zan, edo berari tokau jakon herrixen edo zerien.

-Beste norbaittek kontau nostan, ez dakot goguan zein, fan eta handik gutxira bialdu ein zittueilla. Oseake ia gerria akabaitten edo bestiok irabazi eueñien bialdu ein zittuein.

-Bai, horreik be bialdu ein zittuen.

-Horreik hilebete besteik ez eben ein. Zure aitta lehenau fango zan?

-Bai ba honeik e... tokau jakon bastante denpora.

-Eta ze tokau xakon soldauska garaixa?

-E?

-Soldauska garaixan tokau xakon edo bestela?

-Ba ez dakit ze esango dutsuten /esangutzuten/, baiña berak zelan bere Kuba auken. Besterik ez euen zerketako, esateko. Kuba! Ni Kubako gerran. Ta Kuba ta hau buenooo, Kuban aldien e, askogatik be hobiaue zan, hau gerriau hamen ikusten auena, Kuba baiño. Berak esaten auen moduen. Ez dakit Kuban zer ikusiko auen. Baiña...

-Oseake harentzako, orduen, hemengo gerria bigarrena zan ia.

-Bai, itxurie bai. Oin, hamen ez jakon /etxakon/ tokau, zezegaittik libre urten auen.

9. Aita salatu zuten

- **Erref:** ARR-082/013
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:26:29. **Bukatu:** 00:28:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Herritar batzuek salatuta, hiru epaiketa izan zituen aita Arrasaten, Bergaran eta azkena Burgosen. Libre irten zen, eta salatzaileen izenak eman zizkioten.

10. Lehertu gabeko bonbak

- **Erref:** ARR-082/015
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:42:32. **Bukatu:** 00:45:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Garratz baserri inguruan, gerran lehertu gabeko bonbak egongo direla uste du Kristinak. Orduko bonbardaketak gogoan ditu. Garratz izan zen auzoko baserri bakarra etxeokak bidali ez zituztena. Anaia beste bandoan zegoelako, agian.

11. Aita idiekin garraiolari

- **Erref:** ARR-082/016
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:45:23. **Bukatu:** 00:47:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

<p>Aitak, garai batean, Bergarako Labe Garaietatik Arrasatera idiekin garraiatzen zuen materiala. Anaia bat pinu enbor batek hil zuen, istripuz. Aramaioko esne-saltzailea zen Manzano-ren furgonetan eraman zuten ospitalera.</p>

Transkripzioa

-Esan dozu, behin baiño gehixautan, etxian idixak zeukatzueilla. Idixak zer zien, etxeko lanetarako edo karreterogintzan be batenbat ibiltten zan?
-Karretero aitte denpora baten ibili zan. Zeretik, Altos Hornostik zerera ekarten, beste Altos Hornosera.
-Bergaratik hona?
-Handik horra, bai. Goixien ez dakit ze ordutan urteten auen ta gabien ez dakit ze ordutan aillegetan zan.
-Ta ze ekarten eben?
-Ba materixala o, burdiñe edo, zerak ekarten zittuen. Aitte ibili zan karretero. Idixekin. Ta gero ba etxien. Etxeko lanak eitten zittuen.
-Ze zuk esan dozu, esan dozu anae bat galdu zebeilla burdixa deskargaitten, ezta?
-Bai.
-Hori ze...?
-Baiñe orduen basutik ekarri zittuen piñuek. Eta han etxe aldameneko kamiñuen holako zer bat dau ta ba goixen itxitten zittuen, gero kamioiek edo erungo zittuen. Eta, ba, bat gaiñera etorri jakon bualtaka ta errebentau ein eutsen... bai. Ekarri auen etxera ta Olanok zerien, ta esaten auen "eneeee... está reventau". Ta orduen eruen auen Elgoibarrera eta ba horixe, Elgoibarren han... karriau... ba ez auen tardau, bi edo hiru egun edo in zittuen.
-Oseake beste anaia be Elgoibarreko ospitalera eruen euein, e? Oseake anai zaharra be gerran hondatutakua, ala!
-Bai, bai.
-Ta gero bestia etxian miña hartuta.
-Zeren automobillien. Aramaixoko zera, letxerue, Manzano. Haren kamioien eruen auen bigarrena. Ta lelengokue ez dakit, ez naz /enaz/ gogoratzen ze autobobilletan erungo auen, baiñe hori bai, kamioie etorri zan... oooo furgoneta bat, ba esniek-eta ibilltteko auken ta hantxe sartute erun auen.

12. Behorrarekin Oñatiko plazara

- **Erref:** ARR-082/017
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:47:21. **Bukatu:** 00:49:40

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

Ama Arrasateko eta Oñatiko plazara astero joaten zen, behorarekin, etxeko gauzak saltzera. Behorren trikimailuak azaltzen ditu Kristinak.

13. Erreka etxean sartu zitzaienekoa

- **Erref:** ARR-082/018
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 00:49:40. **Bukatu:** 00:53:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

Gerra denboran, urik ez, baina argindarra bazuten etxean. Arropak errekan garbitzen zituzten. Etxe ingurutik pasatzen zen erreka Anporreta menditik gainezka etorri zen batean, etxeko ate batetik sartu eta beste batetik irteten zen; ukuiluko abereek igeri egin omen zuten.

14. Arrasateko uholdeak

- **Erref:** ARR-082/019
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:53:09. **Bukatu:** 00:55:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Kalean uholdeak izan ziren garai batean. Uholdeak egin zituen kalteak azaltzen ditu. Etxeko soroetan urarentzako bideak egiten zituzten, kalteak gutxitzeko.

15. Etxezarretako jauna etxeko lorategian ehortzia

- **Erref:** ARR-082/020
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:55:52. **Bukatu:** 00:58:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

<p>Etxezarreta etxeko ugazaba aberatsa zen. Bi neskame zituen. Sagardoa egiten zuen etxean. Kristina batzuetan hara joaten zen jolastera, panpinak zituzten eta. Etxeko jauna hil zenean, elizkoia ez zenez, etxeko lorategian lurperatu zuten.</p>

16. Etxezarretako lursailak

- **Erref:** ARR-082/021
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:58:06. **Bukatu:** 01:00:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Etxezarretako jauntxoa hil eta gero, bere senideren bat egon omen zen bertan bizitzen, baina etxea utzikeriak hartuz joan zen. Ganadu eta soro asko omen zituen. Lursailak San Prudentzioraino ailegatzen ziren.

17. Etxezarretar aberatsak

- **Erref:** ARR-082/022
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 01:00:14. **Bukatu:** 01:01:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Trajez jantzita ikusten zuten Etxezarretako jauna. Bere alabari "la señorita" deitzen omen zioten. Kristinaren osaba, Etxezarretako zaintzailea zenez, bere familiarekin etxe nagusiaren ondoan bizi zen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com